

Lehen Hezkuntzako 4. mailaren Ebaluazio Diagnostikoa

2022-2023 Ikasturtea

Matematika gaitasuna, BURUZKO KALKULUKO ARIKETA

Irakasleentzako jarraibideak (IRAKURRI ARRETAZ PROBA APLIKATU BAINO LEHEN)

- Giro egokia ezarri, arretatsu eta isilik egon daitezen.
- 1. ariketa egingo dela azaldu eta enuntziatua arretaz eta ozenki irakurri:

<ol style="list-style-type: none"> Irakasleak <u>ozenki</u> 3 buruketa eta 3 eragiketa irakurriko ditu. <u>Hiru aldiz</u> jarraian errepikatuko ditu eta eten txiki bat egingo du errepikapen bakoitzaren ondoren. Paperean EZIN duzu eragiketarik egin; buruz egin behar dituzu. Idatzi emaitza <u>zifrekin</u> honako taula honetan:
--
- Irakurri ondoren, buruketak eta eragiketak enuntziatuko dira, errepikapen batetik bestera 5 segundoko tartea utziz.
- Ariketa osoan zehar intonazio egokia erabiliko da, 6 buruketen/eragiketen artean eten argia eginez.

A problema	Mendizale talde bat mendira abiatu da. Jateko 36 txokolate ontza hartu dituzte, guztira. Taldeko mendizaleak 9 badira eta eraman dituzten 36 ontzak zati berdinetan banatzen badituzte, zenbat ontza janen du bakoitzak?
B problema	Lauraren aitak 15 kg pisatzen duen motxila darama; amarenak 9 kg ditu eta Laurarenak, 7 kg. Zenbat pisatzen dute hiru motxilek batera?
C problema	Lau lagunek aterpean afaldu dute. Afari bakoitzak 12 € balio du. Guztira, zenbat ordaindu dute?
D eragiketa	$2500 - 600 + 50 =$ (2500 ken 600 ...2 segundoko etenaldia... gehi 50 berdin ...)
E eragiketa	$7 \times 8 - 8 =$ (7 bider 8 ...2 segundoko etenaldia... ken 8 berdin...)
F eragiketa	$70 - 29 =$ (70 ken 29 berdin...)